

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2023ko URRIAREN 27an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2023ko urriaren 27an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, eguerdiko 13:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Maria Isabel Vaquero Montero  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren


Bere ezin etorria azaltzen du: Ander Iturri Torrea

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2023ko irailaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 26 de septiembre de 2023.**
  - **2023ko urriaren 10ean egindako ez ohiko bilkura/ Sesión extraordinaria de fecha 10 de octubre de 2023.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Eudelek igorritako zirkularra onartzea, % 0,5 eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa 2023.01.01 ko ondorioekin/ Aprobación de la circular enviada por EUDEL sobre el incremento retributivo adicional del 0,5% con efectos del 01.01.2023.**
- 5. Katilutxulo Elkarteko erauzgailuaren erreformarako kontratuaren esleipena./ Adjudicación del contrato de reforma del extractor de la Sociedad Katilutxulo de Larraul.**
- 6. Ekonomiaren garapen, jasangarritasun eta ingurumeneko sailburuaren, 2023ko irailaren 12ko aginduaren babesean, zeinaren bidez arautzen baitira, 2023ekitaldirako, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntza (Erein programa) diru-laguntza eskaera egitea/Solicitud de subvención al amparo de la Orden de 12 de septiembre de 2023, del Consejero de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se regula, para el ejercicio 2023, la concesión de ayudas destinadas a la promoción y desarrollo de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Erein).**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 7. Beste batzuk/Otros.

### 8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

8.1. EAJ-PNV talde politikoak eskatuta," Eudeleko batzorde eragilearen adierazpena, Euskal autonomia erkidegoko auzitegi nagusiaren 435/2023 epaiaren aurrean/ A petición del grupo político EAJ-PNV: Declaración de la Comisión Ejecutiva de Eudel ante la sentencia 435/2023 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco

..//...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- ▣ 2023 urteko irailaren 26an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.
- ▣ 2023 urteko urriaren 10ean egindako Udalbatzaren ez ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak aho batez onesten du.

### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 48/2023tik 55/2023ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IZFE	38,66
KIROLZER	54,45
GIPUZKOAKO URAK	4399,52
GIPUZKOAKO URAK	8193,76
ESTANIS JAUREGI	1110,19
BERRI	2240,92
BERRI	11,06
SECURITAS DIRECT	53,02
SECURITAS DIRECT	52,39
GRENKE	214,17
OSCAR GALINDO	133,10
BABESA SUZAI	208,39



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IZFE	1996,88
EBA ERKIZIA	1953,73
GUREAK	1,20
ZU ETA BIOK	627,25
BERTSOZALE ELKARTEA	289,18
ARRATE ITURBE	2352,24
LOPETEGI	163,94
URPA	640,45
ESTER POVEDA	330,00
URRATS	330,00
BODEGA DONOSTIARRA	127,85
FRAISORO	35,00
TELEFONICA	27,83
TELEFONICA	147,32
TELEFONICA	243,69
REPSOL	21,71
REPSOL	59,53
REPSOL	64,83
BASAJAUN	64,31
ZU ETA BIOK	422,51
TOLOSALDEA GARATZEN	428,07
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1530,20
ULAHI	454,08
REPSOL	165,37
REPSOL	205,86
TELEFONICA	10,41
IKASIGROUP	89,55

Udalbatza honek, **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **29.492,62** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**EUDELEK IGORRITAKO ZIRKULARRA ONARTZEA, %0,5 eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI BURUZKOA 2023.01.01eko ONDORIOEKIN**

Ikusirik Eudel-ek eginiko gomendioa, non ondorengoa dioen:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**“ZIRKULARRA, % 0,5eko ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIARI  
BURUZKOA,  
2023.01.01eko ONDORIOEKIN**

*2023ko ekitaldirako ordainsarien igoerei buruz EUDELeK urtarrilaren 18an eta irailaren 22an bidalitako zirkularren jarraipen gisa, honako hau jakinarazten dizuegu:*

*Joan den irailaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren 2023ko iraileko datu aurreratua argitaratu zuen, %3,2koa. Datu horri 2022ko ekitaldiko urteko KPI harmonizatua gehituta, %5,5koa, % 6tik gorako batura ateratzen da, eta baldintza hori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19. BI artikuluan jasotzen da, ordainsarien % 0,5eko gehieneko igoera gehigarria egiteko, 2023-01-01eko ondorioekin. Ildo horretan, eta legeak berak jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran, gehikuntza hori aplikatzea erabaki du [\(2023.10. 5 BOE\)](#).*

*Aurrekoa ikusita, EUDELeK aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsarien igoerei dagokienez egin izan duen bezala, eta 31/2022 Legeak ordainsarien arloan izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitze jotzen da euskal udalei honako **GOMENDIO** hau egitea:*

- 1. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.a) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea.*


*Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.*

- 2. Aipatutako 31/2022 Legearen 19. BI 2 b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, 2023an Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaerarekin lotutako %0,5eko beste igoera gehigarri bat egiteko aukera aurreikusten da. Baina Ministro Kontseiluaren erabaki bidez hori buruz xedatzen dena beteko da, dagokion unean, eta EUDELeK horren guztiaren berri emango dizue, unean-unean.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Eudelek igorritako zirkularra bere osotasunean onestea eta aplikatzea, %0,5eko ordainsari-igoera gehigarriari buruzkoa, 2023.01.01 eko ondorioekin.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**BOSTGARRENGO PUNTUA**  
**KATILUTXULO ELKARTEKO ERAUZGAILUAREN ERREFORMARAKO**  
**KONTRATUAREN ESLEIPENA**

Larraulgo Udalak beharrezkoa ikusten du Katilutxulo elkarteko erauzgailuaren erreformarako, erauzgailu berri bat jartzeko kontratua esleitzea, horretarako Euskal Hotz enpresak aurkezten du aurrekontu bat.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako Hornidura kontratu txiki baten aurrean gaude.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

*Hornidura* kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Beraz, Toki jardunbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: EUSKAL HOTZ enpresari, Katilutxulo elkarteko erauzgailuaren erreformarako, erauzgailu berri bat jartzeko esleipena onestea, 3.442,00€ (BEZa kanpo) diru-kopuruan, 1.0000.685.933.00.01 kontu sailaren kontura “Inbertsioak, Herri ostatua”.

BIGARRENA: Erabaki honen berri EUSKAL HOTZ enpresari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUAREN, 2023KO IRAILAREN 12KO AGINDUAREN BABESEAN, ZAINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITIRA, 2023 EKITALDIRAKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA-EREMUAK SUSTATZEKO ETA GARATZEKO LAGUNTZA (EREIN PROGRAMA) DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA)**


Ikusirik 2023ko irailaren 12ko agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta ingurumeneko sailburuarena, non 2023 ekitaldirako, Euskal Autonomia erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak onartu ziren EREIN PROGRAMA.

Ikusirik, Larraulgo Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea” izeneko proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- “Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea” izeneko proiektua gauzatzeko, egin behar diren kudeaketak eta lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2023ko irailaren 12ko aginduaren babesean, non, 2023 ekitaldirako, Euskal



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Autonomia erkidegoko landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak onartu diren( EREIN PROGRAMA).

BIGARRENA.-“ Larraulgo udaletxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasunen baldintzen hobetzea” izeneko proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkitzen.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

#### **8.1. EAJ-PNV TALDE POLITIKOAK ESKATUTA, “EUDELEKO BATZORDE ERAGILEAREN ADIERAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIAREN AURREAN.**

Ondoren EAJ-PNV talde politikoak eskatuta, “Eudeleko batzorde eragilearen adierazpena tratatu da, Euskal Autonomia erkidegoko Auztegi Nagusiaren 435/2023 epaiaren aurrean”, non ondorengo dioen:

#### **“EUDELEKO BATZORDE ERAGILEAREN ADIERAZPENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIAREN AURREAN**


*Bilbon, 2023ko urriaren 19an.*

EUDEleko Batzorde Eragileak gaur Euskadiko Udalen Elkartearen egoitzan egin duen lehenengo ohiko bileran, alkateek jarraian datorren adierazpena onartu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak eman berri duen epaia dela eta. Epaia horrek 179/2019 Dekretuaren zati bat baliogabetu du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzeko. Ondorioz, alkateek hau adierazten dute:

1.- Aurretik, Konstituzio Auzitegiaren epaian egin bezala, EUDElek berretsi egin du ETELen defentsa, udal-autonomiaren eta toki-erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan. Legea ezinbestekoa da euskal udalek euskararekiko duten konpromisoa eta euskal udalerrietan euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duten hurbiltasunetik abiatuta.

2.- EUDElek uste du epai berri hori **toki-autonomiaren aurkakoa dela**, eta hizkuntza arloko udal-eskumenen garapen osoa mugatzen duela.

EUDEleko Batzorde Eragileak bereziki larritzat jotzen du euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikulua baliogabetzea. Funtsezko beste artikulua batzuk ere deuseztatzen dira, hala nola,



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

kontratazio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen dutenak edo udal-jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-plangintza ahalbidetzen dutenak. Alderdi horiek eta beste batzuk funtsezkoak dira herritarrek beren hurbileko administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

3.- Udalek hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak ezin ezartzea, ez barneko ezta kanpoko mailan ere, oztopo da toki-erakundeen funtzionamenduan eta, are kezkarriagoa, euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Kaltetuenak euskara gehien erabiltzen den eta ohiko hizkuntza den udalerrietako herritarrak dira.

4.- Adostasun politiko eta instituzionalak eta euskal gizartearen elkarlanak, euskal hiztunen komunitatearen bultzada borondateagatik, euskararen bizitasuna indartzea ahalbidetu du gure herri eta hirietan. EUDELeK egungo egoera balioan jartzen du, estatuan eta Europan hizkuntza koofizialen erabilera errazteko urratsak egiten ari baitira, eta, hori horrela, guztion artean eraikitzen joan den legeriaren bidez, hizkuntza-eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukera baita.”

Segidan, Maite Arana Alkateak hitza hartzen du azaltzeko Larraulgo udalean ez dagoela organizazioko erregelamendurik onartuta, horregatik, adierazpen honen aurrean, udala osatzen duten bi alderdi politikoek bost minutuko hitza izango dutela euren posturak azaltzeko.

Maribel Vaquero EAJ-PNVko zinegotziak hitza hartzen du, bere argudioak emanaz, EUDEL-ek prestatu duen adierazpen honekin bat egiten dutela adierazteko (435/2023 Epaiarekin oso kezkatuta agertu da, Epaiak ETEL-ek 179/2019 Dekretuak aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzen duen zati bat baliogabetu duelako, Toki-autonomiaren aurka joanez eta hizkuntza arloko udal-eskumenen garapen osoa mugatzen duela ustez.....).

Segidan, Maite Arana Alkateak hitza hartzen du, bere argudioak emanez, sententziak esaten duena errespetatu egin behar dela adierazten du, ( nahiz eta azaldu bere taldeak askotan euskarari eman diola bere babesa) horregatik, EUDEL-ek aurkezturiko adierazpenaren kontra agertzen direla adierazten du.

Gaia bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:

- Aldeko botoak: 2- Joxe Agustin Arrieta eta Maribel Vaquero zinegotziak
- Kontrako botoak: 4- Maite Arana, M<sup>a</sup> Pilar Cortajarena, Vicente Garcia eta Jose Antonio Rodriguez Alkate eta zinegotziak.
- Abstentzioak: 0

Bozketaren emaitza ikusita, Udalbatza honek, gehiengoz ondorengoa





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZAN DU:

BAKARRA: EAJ-PNV talde politikoak eskatuta, Eudeleko batzorde eragilearen adierazpena **ez onartzea**, Euskal Autonomia erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 435/2023 epailearen aurrean.

Erreguetan, Maribel Vaquero zinegotziak eskerrak ematen du udalbatzaren eguna aldatu delako.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 13:28 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.